

# BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

## MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa aldez aurretik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p><b>Aurkezpena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez da ebaluatuko.</li> <li>• Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (Izen-abizenak eta NANA).</li> </ul> <p><b>1. ariketa: Bakarrizketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.</li> <li>• Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko.</li> <li>• Denbora: 3 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen galderari erantzuteko.</li> <li>• Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio.</li> <li>• 15 puntu.</li> </ul> <p><b>2. ariketa: Elkarrizketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gai baten inguruko fitxa banatuko zaizue.</li> <li>• Iritzia trukatzeko egoera bat aurkeztuko zaizue. Helburua argumentatzea, negoziatzea eta iritzia trukatzea da.</li> <li>• Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 6 min elkarrizketan aritzeko.</li> <li>• 15 puntu.</li> </ul>	<p>30 min</p> <p>(10 min gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

## 1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- 10 min dituzu gaiari buruz duzun iritzia antolatzeko eta azterketan esango duzuna prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoitxo bat. Gero, 3 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
  - gaiari heldu diozun,
  - esaten duzuna ulergarria den,
  - euskara nola erabiltzen duzun: jarria, zuzentasuna eta aberastasuna.

### BAKARRIK BIZI DIRENAK



Gero eta gehiago dira bakarrik bizi diren pertsonak. Batzuen kasuan aukera pertsonala da, baina beste batzuen kasuan, berriz, derrigorrean hartutakoa, bizitza partekatzeko lagunik aurkitzen ez dutelako. Hainbat enpresa, aurrean daukaten negozioa ikusita, bakarrik bizi direnentzako jarduera bereziak ari dira eskaintzen, bidaiak eta festak, besteak beste.

- 
- Zer deritzozu bakarrik bizitzeari? Zein dira egoera horren arrazoiak?
  - Zein dira bakarrik bizitzearen alde onak eta txarrak?
  - Zer uste duzu pertsona horientzat antolatzen diren jardueraz? Zergatik?

## 1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- 10 min dituzu gaiari buruz duzun iritzia antolatzeko eta azterketan esango duzuna prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoitxo bat. Gero, 3 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzean, hauexek hartuko dira kontuan:
  - gaiari heldu diozun,
  - esaten duzuna ulergarria den,
  - euskara nola erabiltzen duzun: jarria, zuzentasuna eta aberastasuna.

## BERRIRO HAUR-TXEKEA



2010. urtean haur-txekea kendu bazuten ere, gaur egun hainbat dira jaiotza-tasa handitzeko berriro abian jarri beharra ikusten dutenak. Orduan 2.500 euroko diru-laguntza ematen zuten izandako edo adoptatutako haur bakoitzeko, eta jaiotza-tasa handitzea zuen helburu.

- 
- Zer deritzozu haur-txekea berriro abian jartzeari? Zergatik?
  - Zein dira haur-txekearen alde onak eta alde txarrak?
  - Zer beste neurri proposatuko zenuke jaiotza-tasa handitzeko?

## 2. ariketa

**Gaiaren inguruko bat-bateko elkarrizketa egingo duzue orain.**

- Iritzia trukatzeko egoera bat aurkeztuko zaizue.
- Helburua: argumentatzea, negoziatzea eta iritzia trukatzea.
- Kontuan hartuko dugu zenbat/nola parte hartzen duzuen.

Materiala eman.

Zer egin behar duten azaldu:

### ■ Egitekoa:

## KRISIA: NEGOZIOA IREKITZEKO AUKERA

*Adituek diotenaren arabera, krisi-garaia aukera-garaia da eta nork bere negozioa irekitzea da irtenbiderik onena egoera ekonomiko txar honetatik ateratzeko. Lana galdu ostean, aurreztutako dirua inbertituz, nor bere jabe izatea da irtenbidea, baina zer negozio ireki da gakoa.*

*Fitxan ikusiko dituzuen argazkietan hainbat negozio mota daude. Haien artean, zer negozio irekiko zenukete krisi-garai honetan? Zergatik? **Komentatu eta zeuen iritzia eman, bakoitzak berea. Horren ondoren, zeuen artean eztabaidatu eta iritziak trukatu.***

- 1 min duzue fitxa begiratzeko, eta 6 min inguru elkarren artean elkarrizketa egiteko.


Jardunaren bitartean:

- Hitz egiten utzi eta denbora kontrolatu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu... (komunikazioa eteten bada, desoreka badago, ekoizpena laburregia bada).
- Horretarako, hemen dituzu galdera osagarriak:

### Galdera osagarriak

- Krisi-garaia garai ona al da negozio bat irekitzeko?
- Ba al dago laguntza nahikorik negozioak irekitzeko?
- Zein da negozio bat irekitzeko zailtasunik handiena?

## KRISIA: NEGOZIOA IREKITZEKO AUKERA



Nekazalturismo Elkartea

Euskadiko nekazalturismo eta landa-ctxeak